

JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA

GAUZAK DESBERDIN

EGIN DAITEZKEELAKO

IDEIA IRABAZLEAK
ETA FINALISTAK
"1. BBK FAMILY LEHIAKETA:
ESPERIENTZIA
BERRITZAILEAK
KONTZILIAZIOAN"

ETA KONTUAN HARTU
BEHARREKO BESTE
JARDUNBIDE
EGOKI BATZUK



SARRERA LABUR BAT

Duela gutxi ezagutarazi dira "BBK Family 1. Lehiaketa: esperientzia berritzaileak kontziliazioan" lehiaketaren ideia irabazleak eta finalistak. Lehiaketa enpresei, ikastetxeei, ikasleen guraso elkarteei (IGE) eta gizarte erakundeei zuzenduta dago.

Lehiaketa horren deialdia egin dugu COVID 19k eragindako itxialdiaren ondoren; izan ere, itxialdi horretan, kontziliazioa deitu zitzaion telelana eta seme-alaben zaintza eta heziketa batoratzeari. Hala ere, garai horretan egin genuena izan zen ahal genuen bezala arintzea larrialdi egoera bat. Egoera horri aurre egiten joan gara ahalik eta hobekien.

Orduan jabetu ginen besteengandik ikasteko aukera zela, eta ikaskuntza espazioak sortzeko aukera. Familiok pausu bat aurrera eman genezakeela irtenbideak bilatzeko, irtenbideak kanpotik etortzearen zain egon gabe. Familia horiei ahotsa eman behar genien, eta abian jartzen hasita zeuden esperientzia txikiei edo handiei bultzada bat eman.

Gure helburua da gauzak desberdin egin daitezkeela jabetzea, jabetzea kontziliazioak familiarekin zerikusia duela baina baita enpresekin, eskolekin eta beste eragile batzuekin ere. Familiak eta familietako kide bakoitza eta haien beharrak aintzat hartzen dituen eredu bat posible dela.

Gauzak beste modu batera egiteari buruz hitz egiten dugunean, esan nahi dugu ekintza berriak sar ditzakegula. Horiek erraztuko dute presentzia eta kalitatezko espazioak partekatzea gure seme-alabekin, lan esparrua ahalik eta hobekien zaintzea, geure buruaren zaintza aintzat hartuz. Aukera dezakegu zer nahi dugun eta non egon nahi dugun, espazio malguak kontuan izanik, eta, batez ere, gure seme-alabentzat aukeratzen ditugun espazioak espazio babesleak izan daitezen bermatuz, alderdi fisikoari dagokionez, alderdi emozionalari dagokionez eta zaintzen dituzten pertsonen aukeraketari dagokionez... Zaindu egiten dugu, bertan gaudenean eta ez gaudenean.

Horregatik, BBK Family-tik Jardunbide Egokien Eskuliburu hau aurkezten dizuegu, lehiaketan aurkeztu diren kontziliazioaren arloko esperientziekin. Nahiko genukeen esperientzia gehiago izatea, baina badakigu hasiera besterik ez dela hau.

Gainera, erakunde batzuek jada ezarrita dituzten esperientziak ere sartu ditugu, egiteko beste modu batzuk eta ikaskuntza espazioak sortzeko beste modu batzuk ezagutzeko.

“BBK FAMILY: ESPERIENTZIA BERRITZAILEAK KONTZILIAZIOAN” LEHIAKETAREN LEHEN EDIZIOAN AURKEZTUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK

MUJIKA ESKOLAKO IKASLEEN GURASO ELKARTEA MAKUMA

LEHEN SARIA.

Mujika Eskolak eskola gisa 100 urte baino gehiago ditu eta 200 ikasle hartzen ditu, 17 nazionalitatetakoak.

Kontziliazioaren inguruko esperientzia:

“**Familiak Naturan!**” [MAKUMA](#) aurkezturiko proiektua da. IGE honek proposatzen du familiek, azarotik aurrera eta maiatzera arte, 15 egunean behin egun bat izan dezatela kontziliaziorako. Urdaibaiko biosfera erreserbara irteera zerbitzua eskaintzen dute, Ekoetxea Urdaibai erakundearekin.

URDUÑAKO ESKOLAKO IGE

BIGARREN SARIA.

[Eskola hau](#) Urduñan dago, eta bertako IGE jada zenbait urtetan ari da lanean, ikasleen jangela zerbitzua eta elikadura hobetzen saiatzeko

Kontziliazioaren inguruko esperientzia:

“**Kontziliazio menua**” da elkarte honen aurkezturiko proiektua. Familia askok zailtasunak zituzten kalitatezko menua eskaintzeko, kontziliazio arazoengatik eta jana prestatzeko denbora faltagatik. Eta are gehiago Covid-en eta itxialdien garaian. IGE honek, Urduñako Udalarekin batera, eskolako prezio berean eskaini nahi du menua, etxean jateko. Horrela, familien lan bat arinduko da, eta beste lan batzuetarako denbora gehiago izango da. Menu horretan aintzat izango dira nutrizio irizpideak, eta, gainera, tokiko ekoizpen ekologikoa sustatuko da.

LOIZAGA PREST S.L.

HIRUGARREN SARIA.

Beste jarduera batzuen artean, erakunde honek jarduera fisikoaren inguruko programak egiten ditu enpresetan, erakunde ofizialetan eta orokorrean, lan esparruan.

Kontziliazioaren inguruko esperientzia:

“**Qtenta Family**” da [Loizaga Prest, S.L.](#) enpresak aurkeztu duen proposamena, eta jarduera fisikoa, aisialdi osasungarria eta izadiarekiko errespetua sustatzeko jarduera bat da. Proposamen honen helburu dira hauek: beren gizarte erantzukizuneko estrategian kontziliazio jarduerak sustatu nahi dituzten enpresak, ikastetxeak, ikasleak eta familiak. Jarduera espazio irekietan eta familia artean egiteko pentsatuta dago. Mapa baten eta QR kodeen laguntzarekin, familiak hainbat adin eta ezaugarritara egokituriko ibilbide bat egingo du, eta proba fisikoak eta lehiaketa zintzoko erronkak egingo ditu beste familia batzuekin. Proposamena hainbat eragileren artean egin nahi da: Loizaga Prest, IGEak, ikastetxeak. Eta Mugiment- Pertsona Aktiboak, Gaituz sport Fundazioa, Getxo Land eta Jata ondo (Uribeko tokiko garapen agentzia); horien ardura da jarduera egiaztatzea.

AFAE - ACCION FAMILIAR EUSKADI GKE

LEHENENGO FINALISTA.

[Acción Familiar Euskadi \(AFAE\)](#) 1987an sorturiko GKE bat da, eta erabilera publikoko erakunde gisa dago aitortuta, euskal familiei eta haien beharrei erantzuteko egiten duen gizarte lanagatik. Horretarako, hainbat zerbitzu ematen ditu: prestakuntza espezializatua, arreta psikologiko pertsonala eta bikoteko eta familiako arreta psikologikoa; horrez gain, zenbait sentsibilizazio ekintza egiten ditu, familiei eta orokorrean gizarteari bideratuta, eta baita komunikabideei eta beste eragile eta erakunde batzuei bideratuta ere, haiekin sarean lan eginez.

Kontziliazioaren inguruko esperientzia:

“**Guraso bakarreko familientzako App-a**” da AFAEk aurkezturiko proposamena. Proposatzen du aplikazio bat garatzea, guraso bakarreko familien eta boluntarioen artean laguntza sarea sortzeko beren seme-alaben zaintzaren arloan. Aplikazio mugikor irisgarria eta doakoa da, eta horren bidez bideratzen dira laguntzak, zerbitzuak eta baliabideak. Aplikazioak 3 zerbitzu eskaintzen dizkie familiei: seme-alaben zaintzan ordukako laguntza ematea, etxeko lanetan laguntza ematea eta informazio atal bat; bertan, familiek informazio esanguratsua aurkitu ahal izango dute, eta kontsulta foro bat, elkarri laguntzeko.

INGENIERO JOSÉ ORBEGOZO-ITURRIGORRI ESKOLA

BIGARREN FINALISTA.

Ingeniero José Orbegozo Gorostidi-Iturrigorri Eskola Bilboko Peñaskal auzoan dago, hezkuntza eta gizarte baliabide urriko zona batean.

Kontziliazioaren inguruko esperientzia:

“**Kontziliaziorako espazioa**” da Ingeniero [José Orbegozo-Iturrigorri Eskolak](#) aurkezturiko proposamena. Ikastetxe honek proposatzen du kontziliaziorako espazio bat irekitzea, gizarte bazterketa arriskuan dauden ikasleentzat. Espazio horretan, hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatezkoa bermatu ahal izango zaie ikasle horiei. Jarduera hori egunero egingo da, eta ordubeteko izango da, 16.30etik 17:30era bitartean. Hezkuntza jarduerak eskainiko dira, eta hainbat motatako beharrak landuko dira: fisiologikoak, elikaduraren arloko behar biologikoak, jarduera fisikoa eta jolasa, kognitiboak, emozionalak eta sozialak. Jarduera horiek hainbat proiektutan dauden zehaztuta: Liburutegia, proiektu digitala, proiektu emozionala eta osasuna, eta, gainera, kultura arteko proiektua.

ASPACE BIZKAIA

[Aspace Bizkaia](#) erakundeak Hezkuntza Bereziko hiru ikastetxe pribatu ditu. Ikastetxe bereziak dira, eta bertara joaten dira 3 urtetik 21 urtera bitarteko ikasleak, buruko paralisia eta/edo antzeko asaldura larriak dituztenak. Hainbat arrazoi direla medio, pentsatu da ez dela egokia ikasle horiek ohiko hezkuntza sarean sartzea, beren ezaugarriengatik.

Kontziliazioaren inguruko esperientzia:

"Aisialdia gozatuz Loiu" da Aspace Bizkaia ekarri duen proposamena. Proiektu hau laguntza bat izan zen garai zailetan, eta familiei eskaini zitzaizen ikasleek zentrora etortzeko aukera izan zezatela astebete gehiagoz oporretan, ludoteka moduan, itxialdiaren ondoren. Zerbitzu honek ingurune segurua, eroso eta arduratsua eskaini zuen, eta ikasleek arreta zerbitzu irisgarriak, egokituak eta kalitatezkoak izatea bermatu zuen.

Ikasleek, taldetan banatuta, Loiu udalerrriak eskaintzen dituen aisialdi aukerez gozatzeko aukera izan zuten.

JOKABIDE PSIKOLOGIA ZENTROA

[Jokabide psikologia zentroak](#) terapia motzaren eredu oinarrituta lan egiten du, jolasean oinarritzen den metodologiaren bidez. Bertan, bullyinga prebenitzeko proiektuak egiten dira, eta haurren eta nerabeen garapen emozionala sustatzeko taldeak dituzte.

Kontziliazioaren inguruko esperientzia:

"Abenturetako taldeak" da Jokabide Psikologia Zentroaren proposamena. Haurren talde bat martxan jartzean datza gakoa. Haur horiekin adimen emozionala, gaitasun sozialak eta balioak landuko dira, beren LNM (Lankidetzako Narrazio Metodoa) jolas egituratuaren metodologia erabiliz. Proposamen hau eraginkorra da gaitasun handiagoa sortzeko ikasketa trebetasunetan, adibidez, arrazoiaketa logiko matematikoan, memorian... Era berean, aurrez antzeman daitezke gabeziak, patologia eta arazo psikologikoak adin txikikoetan, horrela errazago aurre egin ahal izateko.

HIRUKIDE BIZKAIA

Hirukide Euskadiko Familia Ugarien Elkarteen Federazioa da. 1999an sortu zen, Arabako (Hirukide Araba), Bizkaiko ([Hirukide Bizkaia](#)) eta Gipuzkoako (Hirukide Gipuzkoa) elkarteek bat egin ondoren. Helburua da kolektibo honen eskubideak babestea bizitzako esparru guztietan: politikan, erakundeen arloan, arlo sozialean, komunikabideetan eta enpresa esparruan.

Kontziliazioaren inguruko esperientzia:

Hirukide Bizkaia proposatzen duen proiektua **"Kahoot-eko familia partidak"** izenekoa da. Partidak antolatzen dira Kahoot joko hezigarriaren online bidezko plataforman ("tribial" antzeko bat da, linean jolasteko). Partidaren antolatzaileak (Hirukide Bizkaia) galdetegia sortzen du, eta, ondoren, jolastu nahi duten familia ugariak gailu elektronikoen baten bidez (mugikorra, tableta, ordenagailua...) erantzungo dute. Programaturiko egunean jolas-tuko da partida, elkarteko langileek dinamizatuta. Langile horiek bertan izango dira, bideokonferentzia bidez. Proposamen honen bidez, aisialdi hezigarriko aukerak eskaintzen dituzte familia guztientzat, kideen arteko harremanak indartzeko eta familia eta lana kontziliatzen laguntzeko.

EDUKABILBO SL

[Edukabilbo](#) Bilbon kokaturiko enpresa da, ikastetxe, IGE eta partikularrentzako hezkuntza zerbitzuetan espezializatua. Programak ditu garapen mentalerako, eskola errefortzurako eta ingelesa ikasteko.

Kontziliazioaren inguruko esperientzia:

"Plan Konzilia" izeneko proiektua aurkeztu du Edukabilbok, eta hainbat zerbitzu proposatzen ditu familia bizitza eta lan bizitza kontziliatzeko normaltasun berriko garai hauetan. Horretarako, monitore laguntzailearen zerbitzua jarri dute abian. Zerbitzua Hezkuntzako eta Aisialdiko profesionalak ematen dute. Hori horrela, haurrek etxean jarrai dezakete jarduera dibertigarriak egiten eta/edo eskola laguntza jasotzen, baita beren gela berrogeialdian dagoen kasuan ere, haurrak Covid-en positibo eman ez badu behintzat. Edukabilbo familiako egoera bakoitzera egokitzen da, eta familia horiek dira zer zerbitzu mota nahi duten eta zerbitzu horren ordutegiak aukeratzen dituztenak.

IPONEY OUTDOOR SPACES

Enpresa honek ohitura osasungarri eta jasangarri garapena sustatzen du, gizakien eta zaldien bertsiorik onena lortzeko. Horretarako, garapen espazio seguru bat eskaintzen du izadian, zaldiekin batera.

Kontziliazioaren inguruko esperientzia:

[iPoney Outdoor Spaces](#) proposamenak aurkezturiko proiektuaren izena da **"Izadiarekin eta zaldiekin harremanetan jarritz"**. Ekozaldiketako klaseak eta tailerrak ematen dira eta zaldien izaera ezagutarazten da, familiak zaldien izaerara gertura daitezten, harremanak izateko eta elkarrekin konfiantza izateko oinarri segurua ezarritik.

Proiektu honen helburua da haurrek, nerabeek eta familiek beren garapena, ongizatea eta osasun fisikoa hobetzea. Era berean, espazio seguruak eta babestuak eskaini nahi ditu izadian. Bertan, familiek ondo pasatzeko aukera izango dute, kide bakoitzak bere burua aurkitu ahal izango du eta familiaren arteko harremanak landuko dira.

KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE JARDUNBIDE EGOKI BATZUK

ACCENTURE

Accenture aholkularitza enpresa 200 hiritan baino gehiagotan dago. Tokiko egoerari buruz duten ezagupena eta hainbat sektore ekonomikotan duten lan esperientzia batzen dituzte, enpresek aurrean dituzten erronkarik garrantzitsueni aurre egin ahal izateko.

Kontziliazioaren inguruko esperientzia:

“**Flex Place to Work programa**” da [Accenture](#)-ren familia eta lana kontziliatzeko programa. Ordu-tegi malguak eta bereziak dituzte gurasoentzat, bititza profesionala eta seme-alaba txikien zaintza orekatzeko helburuarekin. Era berean, hainbat formula eskaintzen dituzte, astean 2 eta 5 egun bitartean telelana ahalbidetzeko. Baimenak daude familiakoak zaintzeko ospitaleratuta dauden bitartean, edo edoskitzaroa luzatzeko (orduak metatuz); era berean, ezkontza baimena eta izatezko bikoteena parekatu dituzte. Gainera, soldata osagarri bat dute medikuaren bajak dirauen egun guztietarako (Accenture-k bere gain hartzen du soldataren % 100aren ordainketa).

EITB

Zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren barnean dagoena. 1982an eratu zuen Eusko Jaurlaritzak, Euskadin irrati eta telebista publikoko zerbitzuak ekoiztu eta igortzeko.

Kontziliazioaren inguruko esperientzia:

[EITB](#)k zabaldu egin ditu kontziliazioari laguntzeko legez ematen diren bermeak eta neurriak. Zehazki esateko, egoera hauetan: ezkontza edo bizikidetzat, ezkontidea, bikotekidea edo seme-alabak hiltzea, odolki-detasuneko hirugarren mailara arteko familiako ezkontza, ohiko etxebizitzatik lekualdatzea eta medikuarengana joatea. Gainera, nabarmentzen da langileek 20 ordu har ditzaketela, justifikatu gabe, odolki-detasuneko edo ezkontza ahaidetasuneko lehen mailara arteko familiako bati medikuarengana laguntzeko.

MAHOU-SAN MIGUEL

Garagardoaren sektoreko Espainiako enpresa bat da, eta 70 herrialde baino gehiagotan dago. 130 urteko historia du, eta 4.250 langile baino gehiago ditu, bere ekoizpen lantegietan, bulego komertzialetan eta delegazioetan lanean.

Kontziliazioaren inguruko esperientzia:

“**Zure osasunaren alde**” da [Mahou-San Miguel](#) enpresaren [programa](#), eta enpresako langileek jarduera fisikoak eta kirol jarduerak egiteko laguntza eta finantzaketa ematen du; jarduera horiek lantegien barnean nahiz kanpoan egin daitezke. Jarduerak Aloveran eta Madrilan egingo dira, bai eta sartu berriak diren beste zentro batzuetan ere, eta erakundeak berak antolatzen ditu.

BBK FAMILY-KO ERAKUNDEAK

BBK GIZARTE EKINTZA

Erakunde honen helburu nagusia da bere gizarte ekintza gauzatzea, hainbat arlo estrategikotan egituratuta. Horien artean nabarmentzen da aitatasun positiboa sustatzea.

Kontziliazioaren inguruko esperientzia:

[BBK Gizarte Ekintzak](#) ordaindu gabeko baimena eskatzeko aukera eskaintzen du, besteak beste, egoera hauengatik: azterketa ofizialak prestatzea, familiakoak zaintzea, lagundutako ugalketa tratamenduak edo 6 urtetik beherako seme-alaben eskola egokitzapeneko denboraldiak. Gainera, jaiotzarekin loturiko baimenak areagotu ditu, amatasun baja eta edoskitze baja amaitzen direnean, eta 3 egun libre gehiago ematen ditu haurtxoaren bizitzako lehenengo 12 hilabeteetan barrena. Horrez gain, kontziliaziorako 20 ordu ditu, seme-alaben zaintzarako eta adineko familiakoen zaintzarako, baita [kontziliazio](#)ko beste bidezko arrazoi batzuetarako ere.

EDE FUNDAZIOA

[EDE Fundazioa](#) gizarte erakundeen talde bat da, eta aldaketa iraunkorrak, inklusiboak eta jasangarriak sortzeko lan egiten du, ezagupenaren, zuzeneko parte-hartzearen eta gizarte ekonomiaren eta enplegu inklusiboaren arloko proiektuak garatzearen bidez.

Kontziliazioaren inguruko esperientzia:

EDE Fundazioak [ordutegi malguak ditu eta baimenak areagotu egiten ditu](#). Horrez gain, kontziliaziorako dirulaguntzak kudeatzeko zerbitzua ere badu: lanaldi murrizketak eta eszedentziak; baita otordu zerbitzuak ere: sukaldea eta jangela. Era berean, orientabidea eta informazioa eskaintzen ditu, eta EDE Taldeak emaniko zerbitzu espezializatuarentako sarbidea (zaintzaileak diren familiakoekiko arreta...). Gainera, informazio zehatza eskaintzen du pertsonari emaniko zerbitzuei buruz: umezain enpresak, etxerako laguntza zerbitzuak, denboraren bankua...

BIDEGINTZA

[Bidegintza](#) Bilboko 5. Barrutiko eta beste auzo batzuetako biztanleen garapen pertsonala eta komunitate garapena sustatzen ditu. Horretarako, aintzat hartzen du komunitateko lana, eta komunitateko lan horren oinarri dira kontzientzia hartzea eta banakoen eta komunitatearen parte-hartzea eta protagonismoa.

Kontziliazioaren inguruko esperientzia:

Bidegintza kooperatibak ordutegiak antolatzen ditu zerbitzuen beharrak aintzat hartuz, eta behar horiek [langileen familia beharrekin uztartuz](#). Horretarako, ordutegi malgutasuna dute, lehentasunak ezartzen dituzte, malgutasuna dute eta zuzeneko arretarako arratsalde gutxiago jartzen dituzte, kontziliazioagatik lanaldia murrizten den kasuetan. Etxetik lan egiteko aukera ere eskaintzen dute. Era berean, bazkideen eta langileen baimen egunak areagotzeko aukera eskaintzen dute, familiakoak diren pertsonak edo "beste familia harreman batzuetakoak" diren pertsonak ospitaleratzen direnean edo hiltzen direnean.

Eskerrak eman nahi dizkiegu BBK Family: esperientzia berritzaileak kontziliazioan lehiaketaren lehen edizioan parte hartzeagatik, eta zorionak finalista eta irabazle izan diren guraso elkarteei, enpresei, ikastetxeei eta gizarte-erakundeei.

Espero dugu hurrengo eskuliburuak kontziliazio-praktika askoz gehiago biltzea; izan ere, horrek esan nahi du enpresek, ikastetxeek eta familiek aurrerapauso bat eman dugula gure seme-alabentzako kalitatezko espazioak eskainiz, gizarte honetako bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzea erraztuz.